Gobierno de Navarra
Departamento de Educación
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Escuela Oficial de Idiomas de Pamplona
Iruñeko Hizkuntza Eskola Oficiala

Compañía 6 – 31001 Pamplona/Iruñea
Tel: 848.43.00.40 · Fax: 848.43.00.51
E-mail:
eipamplo@educacion.navarra.es

eoip·iheo

2019-2020 IKASTURTEA - MODULU BERRIEN ESKAINTZA

INGELESA: GAURKOTZEA ETA HOBETZEA (C MAILA): IDAZMENA ETA AHOZKO ADIERAZPENA I-II MODULUA

NORENTZAKO:
Idazmena edo ahozko adierazpen probak gainditu ez eta maila errepikatu nahi duten ikasle ofizialentzako; trebetasun hauek zehazki prestatu nahi dituztenentzako; lehendik ikaslea izan eta bere ezagutzak gaurkotu nahi eta ingeles hizkuntza modu aktiboagoan lasai, azken ziurtagiriaren azterketa egin beharrik gabe, praktikan jarri nahi duen edonorentzako.

BETEBEHARRAK:
HEO batean ikasle ofizial gisa C1eko kurtsoa egin eta/edo B2ko titulua eduki (HEOean edo ingeles hizkuntzaren ezagutza ziurtatzen duen edozein erakundetan). Baldintza horiek bete ezean, irakaslearekin elkarrizketa izan beharko da.

IKASTAROAREN EZAUGARRIAK:
Ordu kopurua: modulu bakoitzeko 65 ordu. Guztira 130 ordu.
Modalitatea: lauhilekoa, astean 2 ordu eta 15 minutuko bi saio.
Modulu hauek independenteak dira eta edukien sekuentziazioa desberdina.
Komenigarria da bi moduluak jarraian egitea erabateko aprobetxamendua eta ikaslearen aurrerapena lortzeko.

IKASLE KOPURUA: 25

HELBURUAK:
- Emozioak, ideiak, esperientziak eta iritziak azkar eta jariakortasunez adieraztea.
- Helburu sozialeko hainbat egoeratan hizkuntza eraginkortasunez erabiltzea, hainbat erregistro erabiliz eta askotariko publikoari zuzendutako mezuekin.
- Uneko gaiei buruzko ideiak eta iritziak zehazki adieraztea.
- Helburu zehatz bat izan eta komunikazio lanak garatzeko beharrezko trebetasunak hobetzea.
- Hizkuntza zentzuzko zehaztasunez erabili ahal izateko errepertorio lexiko zabala menperatzea.
- Ahoskera eta doinua hobetzea.
- Trebetasun integratuak lantzea ikasgelako praktikan bitartekaritza sartuz.

- Testuinguru eta euskarri anitzetan erantzun gisa idazteko ohitura eskuratzea (postalak, blogetan iruzkinak, literatura testuak, liburuxkak, zuzendariari gutunak, eskaerak, etab.).
- Interesa duen ikasleari ziurtapen proben formatuko ahozko adierazpena eta idazmena ezagutzen laguntzea.

METODOLOGIA:
- Ikuspegi metodologikoa aktiboa da nagusiki. Ahozko adierazpena eta idazmena lantzeko jardueretan, benetakoak edo sinesgarriak, esanguratsuak eta ikaslearentzako interesa duten komunikazio egoerak islatzea bilatzen da.
- Ikastaroaren formatuak ikaslearen parte-hartze aktiboa eskatzen du. Bereziki, taldeka edo bikoteka lan eginen da, modu kooperatiboan eta baita bakarka ere.
- Iturri eta euskarri desberdinetan jasotako benetako materialarekin lan eginen da.
- Komunikazio izaera izanen duen helburua lortzeko edo proiektu bat gauzatzeko amaiterako lan bat eginen da.

EBALUAZIOA:
Ez da izanen ziurtagiri formal baten ebaluaziorik. Ikaslearen aurrerapena ezagutzeko hezkuntza ebaluazioa egingo da, ondoko mekanismoak erabiliz: parekoen arteko ebaluazioa, irakaslearen behaketa edo proiektu edo zeregin batean aurreikusitako komunikazio helburuak lortzea.

EGIAZTATZEA:
- Aprobetxamendu ziurtagiria moduluan eskatutako mailaren ebaluaketa gainditu duten ikasleei.
- Etortze-ziurtagiria, gutxienez klaseen %80tara etorri diren ikasleei.
- Ikasleak, hala nahi izan eta aurretik eskuratua ez balu, C1 egiaztagiria eskuratzeko azterketara aurkezteko aukera izango du. (Matrikula librea egin beharko du).

Ikastaro hauetan izen ematea ikasle ofizialen ohiko matrikula prozedura jarraituz eginen da; hau da, aurreinskripzioa, zozketa eta on-line matrikula.

Argibide gehiago https://eoip.educacion.navarra.es web orrian.